

# Ariketa ugari eta egokiak

Jacqueline Boulouffe (Université  
Laval, Québec)

*Ariketa-aukera egokia ez dago hiztegiaren edo testuaren baitan, landu nahi diren gaitasunen menpean baizik. Imitatu, behin eta berriz birmoldatu eta sormena erabili, horixe da eginbeharrekoa, guztia ondo orekatuta, jakina. Ariketa deskondizionatzaileak izango dira artikuluko honen gaia, ikasleak birmoldaketara eramaten dituztenak alegia.*

## Sarrera

Artikulu honetan nire helburu nagusia da ariketa kondizionatzaileak eta deskondizionatzaileak bereiztea. Lehenengoetan, ikasleak forma eta honi lotutako esanahia –formak adierazten dion bezala jaso eta onartzen duen esanahia– bereganatzen ditu. Ariketa deskondizionatzaileak, ordea, ikaslea bultzatzen du esanahi bat adimenean hartu eta buruan dituen formen artean esanahi horri dagokionen bat bilatzera. Ez da gauza ziurtzat jo behar forma eta esanahiaren arteko loturak beti bi norabideetan funtzionatzen duenik; *esanahia-forma* norabidean entrenamendu berezia behar da. *Forma-esanahia* norabidean loturak berez ondo funtzionatzeak ez du esan nahi alderantziz ere ondo funtzionatzen duenik.

Ariketa kondizionatzaileetan, “esan nahi dena” eta esanahia (adiera) gauza bera dira; ariketa deskondizionatzaileetan “esan nahi du” esateak asmoa adierazten du. Lehenengoetan eredu bat azaltzen zaio ikasleari, imitatzeko moduan azaldu ere; eredu esaldi zingle bat, lokuzioren bat edo, idazketa paraleloetan bezala, testu osoa izan liteke. Eredua beharrezkoa izan daiteke neurri batean edo, baita, oso urruti geratu ere, hain urruti ikasleak ez baitu erreferentzi puntutzat hartuko. Beraz, ariketa kondizionatzaileen eta deskondizionatzaileen arteko aldea ez dago ereduarekiko tartean; ikasleari lehenengo eginarazten zaionak bereiziko ditu bata bestetik: ereduari begiratu eta horren arabera lan eginarazten zaion ala lehenbizi hitzaren egintza buruan sortu eta bere lana hortik abiarazten. Azkeneko lan honek eman dezake hizkuntza erabiltze soila delako inpresioa. Baina, ikasleari hizkuntza erabiltzea eskatzen dioten ariketek jariotasuna, malgutasuna eta azkartasuna eskatzen diote; deskondizionatzaileek, ostera, zehaztasuna hobesten dute, ez bakarrik zuzentasunaren aldetik, baita intentzioa edo xedea *oso-osorik* azaltzearenetik ere, bere mezua igortzeko erabiltzen duen atal informatibo soila

ematera mugatu gabe. Ikasleak bere mezuaren alderdi modala saiheste-ko joera izaten du. Saihestu nahi izaten ditu, esaterako, bere burua hitzaren egintzan lekutzeko balio duten laguntzaile modalak eta artikul-  
luak. Ariketa deskondizionatzaileen xedea, ordea, da, bere asmoa kon-  
tzeptualizatu ondoren esaldi egokia aurkitzeko zailtasunik izan baldin  
badu, itzul dadila berriro eredura forma horiek erabiltzen asmatzeko.  
Laguntzarik behar izatera, irakasleak eramango du oroimenean bilduta  
daukana era egoki eta eraginkorrean erabiltzera. Eredua orain ere fun-  
tsezkoa izango da, baina abiapuntu izan beharrean, erreskaterako meka-  
nismoa izango da eta behar duenean bakarrik joko du hartara ikasleak.

### *Ariketen osagaiak*

.1 laukiko 1-5 dira ariketen ezinbesteko osagaiak; 6-10 osagaiak aukera-  
koak. Horrek esan nahi du edozein ariketetan garbi jakin behar dela hel-  
burua zein den: kondizionatu, deskondizionatu edo erabili; eta helburu  
bakoitzari dagozkion gaitasunak zein diren, hots: imitatu, buruan hartu  
eta deduzitzea ariketa kondizionatzaileekin lotuta dagoela, berreskura-  
tzea deskondizionatzailearekin eta asmatzea erabilerarekin. Ariketa oro-  
ren helmuga normalean lau trebetasunetako bat lantzea izan ohi da, hiz-  
kuntz alor jakin batean, eta ariketa oro era batean edo bestean azalduko  
den testu batek osatzen du. Aukerako ezaugarriak zehaztu gabe eta ikas-  
learen ikaskuntz mailaren baitan utz daitezke. Lagungarri ikusentzunez-  
koak erabiltzea ala ez norberaren esku dago eta hala berean ezagutza  
pasiboa zein aktiboa nahi izatea. Hobe da alde zuretik erabakitzea  
nolako frogak eta nolako elkarreragina erabiliko diren, baina hori ez da,  
nire ustez, goiko zutabeetako elementuak bezain garrantzitsua, bi lehe-  
nengoetakoa bezain garrantzi handikoa ez behinik behin.

### *.1: Ariketen osagaiak*

| 1. Xedea        | 2. Gaitasuna | 3. Trebetasuna   | 4. Alorra                    | 5. Testua                            |
|-----------------|--------------|------------------|------------------------------|--------------------------------------|
| Kondizionatu    | Imitatu      | Entzumena        | Hotsak                       | Argia/iluna                          |
| Deskondizionatu | Jaso         | Irakurmena       | Egiturak                     | Jarraia/etena                        |
| Erabili         | Deduzitu     | Mintzamena       | Hiztegia                     | Hutsuneduna                          |
|                 | Berreskuratu | Idazmena         | Komunikazio-<br>-funtzioak   | Birmoldatu/<br>irakurri/             |
|                 | Asmatu       |                  | Metahizkuntza                | sortzekoak<br>Ordezkapen-<br>-taulak |
| 6. Euskarria    | 7. Ezagutza  | 8. Elkarreragina | 9. Froga-mota                | 10. Jatorria                         |
| Objektua        | Aktiboa      | Irakasle/ikaslea | Egia/gezurra                 | Irakaslea                            |
| Marraskia       | Pasiboa      | Ikasle/irakaslea | Bitan bat<br>aukeratzea      | Liburua                              |
| Laukiak         |              | Ikasle/ikaslea   | Askoren artean<br>aukeratzea |                                      |
| Bideoak         |              | a) dramatizazioa |                              |                                      |
| Sekuentziak     |              | b) rol-jokoak    |                              |                                      |
| Filmeak         |              | c) joko-jolasak  | Galde-erantzun               |                                      |
|                 |              |                  | Elkartu/<br>azpimarratu      |                                      |

Ariketa kondizionatzaileei finkapen-ariketak ere esaten zaie. Ikaslea eredu bat errepikatu, imitatu eta gogoan hartzera behartzen dute; eredu edozein neurritako testu bat izan daiteke: esaldi bakarra, istorioa, elkarriketa. Eredua elementu berriren bat aurkezteko markoa izango da: hotsa, hiztegia, esaldia, egitura edo komunikazio-funtzioa. Finkapen-ariketaren aurretik irakasleak aurkezpen bat egingo du. Irakasleak ziur egon nahi du ikasleak gauza direla material berria beste testuinguru desberdin batean erabiltzeko eta testuingurutik aterako dutela gehitu zaizkion esanahiak oro, dela hizkuntzazkoa dela hizkuntzaz kanpokoa. Horrela, beraz, irakasleak egiaztatuko ditu alde batetik, ikasleak ondo imitatu duela eta bestetik, baduela buruan hartu eta deduzitzeko gaitasuna ere.

Ariketa deskondizionatzaileak oroimenaren funtzio berreskuratzaileari lotuta daude. Eredurik ez dago jada, ezta arbelaren atzekaldean ere. Ariketa deskondizionatzaileak denbora-puska bat igaro ondoren egiten dira; ikasleak beste gai batzuez arretatu izan behar du bitartean eta, seguraski, ez dauka gogoan duela zenbait aste finkatutako materiala. Berrito gogora ekarri behar du material hori, baina kondizionamendu-prozesua berritu gabe. Ikasleak *aurrerapauso* bat egin behar du bere ikaskuntzan, nik, hitz egokiagorik aurkitu ezean, deskondizionatzailea deitu dudana pausoa. Izan ere, oraingoan eredu ez zaio kanpotik ezarriko, bere barruan birstortuko baizik. Irakasleak esaldi bat dagokion egoeran erabiltzera eramango du ikaslea, nahiz eta honek seguraski saihestu egin nahiko duen. Irakasleak gogor egingo dio ikaslearen ihes-estrategiari. Hau adierazpide askeko ariketen aldean oso bestelakoa da, han balio baitu eta gomendatu ere egiten baita esaldi egokiaren ordezkari balio bereko beste edozein erabiltzea. Hemen, ordea, helburua ordezkari esaldi hori ekiditea da eta ikaslea esan nahi duena adierazteko molderik egokiena erabiltzera behartzea. Lehenengo, bere asmoak kontzeptualizatzea eta kontzeptualizazio horiek adierazteko eramango da ikaslea. Hurrengo pausoa berreskuratze-ariketa izango da; ikaslea bere adimen-biltegian eredu bat berreskuratzea bultzatuko da. Gero berreskuratutako material hori bere oraingo asmoetara egokitu beharko du. Ikasleak berreskuratuko du materiala, baina orain garraiogailu izango da eta ez eredu edo kondizionatzaile.

Testu-liburuetarako dira ariketa kondizionatzaileak. Deskondizionatzaileak, berriz, irakasleek erabiltzeko: irakasleak bakarrik lor dezake, izan ere, ikasleak esan nahi eta egoki ezin duenean, gogoan dautkan ereduak eta orain esan nahi duenari ondo datorkionak bat egin dezaten.

Ariketa deskondizionatzaileak arriskutsuak dira, baina probetxugarriak; batez ere ikaslea bere ama-hizkuntzarena ez bezalako hizkuntza bateko giroan dagoenean eta eskolorduek “rol-joko” edo “informazio-hutsarte” eta horrelakoetarako betarik ematen ez dutenean. Arriskutsuak dira honako arrazoi hauen kariaz:

- Irakasleak ikasleak ezagutzen ez duen egoera bat aukeratzen duelako eta, beraz, egoera honek ereduko esaldi hura gogora ekarriko ez diolako. Irakasleak uste du ikaslea, galdera egokien bitartez, iritsiko dela egoera berak bezala ikustera, eta ateraraziko diola nahi duen esaldi hura, alegia.
- Irakasleak uste du ikasleak gogora ekarriko duela lagunduko dion eredu hura. Hori, ordea, bi alderdiren baitan dago: ikasleak eredia nola jaso duen, eta irakasleak orain gogora ekartzeko erabiltzen duen eragingarriarekin lotura estua duen ala ez.

Irakasleak uste du ikaslea ohartuko dela ereduak eta esaldiak elkarrekin duten lotura formalaz. Ikasleek, jeneralean, egoerazko loturak atzemateko joera handiagoa izaten dute lotura formalak atzematekoa baino.

Prestakuntza handia eskatzen dute ariketa deskondizionatzaileek. Irakasleak, nahi duen kontzeptualizazioa sustatzeko, egoera euskarririk egokiena aukeratzen saiatu beharko du. Marrazkiak *ekar dezake* burura nahi den forma, baina deskribapen zingleak egitera bultzatzen du ikaslea; beraz, honek ez luke inoiz zalantzarik izango eta irakasleak esku hartu beharko luke eta ikaslea bere buruarekin konpromenezuak hartzera bultzatu. Irakasleak eragingarri ekonomiko baina egoki datozenak erabiliko ditu: ez dio utziko ikasleari berak egindako galderen bitartez erantzunaren forma zein den aurkitzen ikasleari ez uzten. Bestalde, ahal den eredurik onena aukeratu beharko du, errazkien gogora daitekeena. Ariketak kondizionatu egiten du ikaslea esan nahi duena esateko eredia garraio gailu gisa erabiltzera. Eta, “deskondizionatu” egingo du esanahi ezagunetarako seinale huts bezala erabil dezan.

Hizkuntzen irakaskuntzan helburua normalean alderdi bakarreko azaltzen da: ikasleek jakin dezatela esaten ari direnaren esanahia eta zerbait esateko arrazoiaren bat eman dakiela. Formaren eta esanahiaren arteko lotura zubi modura ulertzen da; testuinguru asko eta egokien bitartez indartu behar da zubi hori, baina ez abildade desberdinak erabiliz, hain hala ariketa kondizionatzaileak zenbaitetan hizkuntza erabiltzeko ariketa huts jotzen baitira. Ariketak ez daude behar litzatekeen bezala berezituak. Nire helburua da ariketak abildadeekin lotzea eta ez testuekin, horrela adierazi nahi denaren eta formaren artean lotura hobea erdiesteko. Ikaslea, jeneralean kondizionatua izan ondoren, elkarreaginezko jokoetan parte hartzera konbidatua izan ohi da, esanahi ezagunetatik intentziozkoetarako aldatzera, hori, prestakuntza berezirik gabe, elkarreaginearen magiarekin soilik, egin litekeelako ustetan. Gauzak ez dira horrela gertatzen. Zalantzarik gabe beharrezkoak dira tarte horretan ariketak.

#### *Ariketen ikerketa*

Ariketa batzuk azalduko ditut orain. Ziur egon nahi nuke irakurleak ulertzen duela zertarako diren eta orobat zer lortuko ez duten beren helburuez at dagoelako. Ariketa hauek guztiak “behar luke” (should) eta “behar zukeen” (should have) irakastearekin lotuta daude.

### 1. ariketa

**Listen to these sentences and repeat them.**

- 1 Mrs. Garland should have kept her jewels in a bank.
- 2 Jane Witherspoon might have felt jealous.
- 3 John Trump wouldn't have stolen the jewels.
- 4 David Welby must have stolen the jewels.
- 5 Jane Witherspoon shouldn't have killed David Welby.

*Capelle, Pavlik & Segal*  
*I Love English 4, 62*

Esaldien egitura entzun eta ulertzen eta laguntzaile modalen artean bereizketak egiten jakitekoa. Entzundakoa errepikarazten zaio ikasleari; errepikatu besterik ez, ez gogoan hartu ez dedukziorik egin. Testua hainbat esaldi soltez osatua dago, baina ez du bete beharreko hutsunerik.

### 2. ariketa

Use *should* or *should have* where possible

- (a) If they didn't want to be late they . . . . . taken a taxi
- (b) It's very cold outside; you . . . . . not go out if you don't want to catch a cold
- (c) If you want to be sure to have a seat for tonight's performance, you . . . . . phone the ticket office now
- (d) He didn't get my letter in time, I . . . . . sent it by air mail

*Merat & Fabre*  
*Creative Reading and Writing 47*

Berriro ere esaldi solteak ditugu langai. Oraingoan, ordea, badira bete beharreko hutsuneak; beraz, dedukzioa beharrezkoa izango da. Dena den, esanahiaren dedukziotan aritu gabe ere burutu daiteke egitekoa. Aski du ikasleak "should"-ek infinitiboa eskatzen duela jakitea eta "should have"-k partizipioa. Ez du esanahia aintzat hartu beharrik.

### 3. ariketa

**Mention what the following people should (or shouldn't) have done before it was too late; use the cues:**

Ex. "I should have given them the boy's address."

- |                                                   |                       |
|---------------------------------------------------|-----------------------|
| 1. Johnny made a mistake.                         | ..... remembered..... |
| 2. Dad was late at the office, yesterday.         | ..... taken .....     |
| 3. Peter broke his leg in the stairs last week.   | ..... looked .....    |
| 4. Susan caught a chill when she went for a walk. | ..... taken .....     |
| 5. Tom has fallen into the river!                 | ..... walked .....    |

*Capelle, Bougère & Girard*  
*Passport to English 2, 63*

Orain ere hutsunedun ariketa. Ikaskizun dagoen formaren erdia eman behar da, testuan bai baitator partizipioa. Testuinguru bat ematea izango da ikaslearen egitekoa, aditzarentzat osagarri bat gutxienez. Bi gaitasun lantzeko da ariketa hau: "should have" forma imitatzeke, eta aditza-osa-garriaren arteko erlazioa aurkitzeko. Aldi berean, bigarren perpausak izan beharko du lehenengoarekin lotura, hiztunaren iruzkin edo izan beharko bailuke. Ariketa honek zuzentasun-itxura izan dezake, ikasleak "should have" imitazioz erabiltzea eta aditz bakoitzari osagarri bat eranstea lortzen badu. Erabiltzeak, ordea, ez du esan nahi "should have" burutu gabeko ekintza bati dagokiola ulertu duenik.

#### 4. ariketa

**Complete the sentences with should have, must have, or might have.**

- 1 I'm angry at my friend. I invited him to a party and he didn't come.  
He \_\_\_\_\_ called to explain.
- 2 Yesterday I met a woman from South America who spoke Portuguese.  
She \_\_\_\_\_ been from Brazil.
- 3 My friend said she'd send me a letter, but I haven't received it. It \_\_\_\_\_  
been lost in the mail.
- 4 I wish I hadn't lost my wallet. I \_\_\_\_\_ been more careful with it.

*Capelle, Pavlik & Segal*  
*I Love English 4, 67*

Testu hutsuneduna hau ere. Esapide modalak eskainiko zaizkio orain-goan ikasleari; berari dagokio testuinguruaren laguntzaz behar hainbateko abileziak bereiztea, alde batetik, probabilitate-mailak eta, bestetik, burutu ez den ekintzarengatik damua. Garbi dago deduzitu beharrekoa ez dela forma, esanahi baizik. Baina bilatu beharreko esanahia ez da perpausa esan duenak eman nahi zuen esanahia, perpausako subjektuaren asmoarena baizik. Nire ustez, 3. eta 4. perpausak era bat baino gehiagotan interpreta daitezke eta galdera da ea nola jakin daitekeen aukeratutako esanahia hiztunak buruan zuenarekin bat datorrela.

#### 5. ariketa

**" 'You should have been here during the uprising', Anatole said" (line 7) implies that the author**  
**(a) was in Paris during the uprising**  
**(b) wasn't in Paris during the uprising**

*Merat & Fabre*  
*Creative Reading and Writing 47*

Berrirori ere esanahia da helburu, baina oraingoan ezinbestean ohartu beharko du ikasleak burutu gabeko ekintzaren funtsezko esanahian. Baina frogaren erantzuna bi aukeraren artean dagoenez, ez dago interpretaziotan ibiltzeko modu handirik.

## 6. ariketa

**Write three sentences about mistakes you have made—things that you shouldn't have done, but did anyway.**

→ I shouldn't have gone out last weekend, but I did. I needed to study.

**Write three sentences about your regrets—things that you should have done, but didn't do.**

→ I should have learned to play soccer, but I didn't.

*Capelle, Pavlik & Segal*  
*I Love English 4, 62*

Oraingoan eredu, ustez hiztunak adierazi nahi duen esanahiarekin lotuta dago. Hala ere, asmoetako esanahi hori kontzeptualizatzeko eragingarririk ez dago. Ariketa hau da bai egiturak bai komunikazioko funtzioak lantzekoa. Baina, tartean komunikazioko funtzio bat –zerbait egin delako ala ez delako damua– eta egitura bat egoteak ez du bermatzen egitura horrek hiztunaren diskurtsoarekin loturarik izango duenik. Eredua erabil dezake ikasleak ordezkapen-ariketa baten hasierako esaldi gisa eta harira datozen ordezkapenak egin, bere asmoa tartean sartu gabe.

## 7. ariketa

**Tell what some of the people related to the Garland burglary should and shouldn't have done.**

→ Jane Witherspoon shouldn't have . . .

*Capelle, Pavlik & Segal*  
*I Love English 4, 67*

Ariketa hau egiteko, ikasleak testua osorik ondo ulertua beharko du izan zurguneak beteko baldin baditu.

Aztertutako ariketa guztiak egokitzen ahalko lirateke lau gaitasunetako edozeinetara. Neure ustez, azaldua dut jada zein zaila den testu-liburu batean ikasleen asmotako esanahiari heltzea. Ariketa batzuen helburua da ez dezala ikasleak zuzenean dedukziorik egin testuinguruak ematen dizkion azternez baliatuz; ikas dezala esanahien arteko aukera segailak egiten, itxuraz bana-ezinak diren bi edo gehiago hauturen artean. Erantzuna engainagarria izan daiteke ikaslearen sakoneko inplikazioaren aldetik. Bestela esanda, nahiz eta eredu urruti edo disimulatua egon, bistan dagoen bitartean, beti izango du ikasleak irteera erraza.

## 8. ariketa

Supposing you wanted your students to practise the structure 'should have done' using the following picture cues to produce sentences like:



You should have gone to bed earlier.



He should have driven more carefully.



She should have bought some more bread.



He should have tried it on before he bought it.

What can you say that will make these sentences into natural sounding responses? NB 'What should he have done?' (pointing to the cue picture) would most naturally be answered, 'gone to bed earlier', rather than the full sentence.

*Willis*

*Teaching English Through English 110*

Ariketa hau beste era batekoa da, ez baita ikaslearentzako, irakaslearentzako baizik. Irakasleari eskatzen zaio erabil ditzala eragingarri grafikoak ikasleei "hurrengo hau bezalako" esaldiak eragiteko; jakina ikasleak ikusten ez dituela. Aditz-gako bat ere erabiliko du noski. Ariketa honek ekintza deskondizionatzaileak eta komunikatiboak nahasten ditu. Askotan esan izan dut bi helburu horiek ez direla elkarrekin nahastu behar. Ariketa deskondizionatzailearen xedea ez da bi pertsonaren arteko benetako komunikaizoa. Komunikaziorik nahi baldin bada, hiztunaren bere buruarekikoa izango da, hots bere buruan lotu ditzala pentsatzen eta esan nahi duena eta lehendik bere errepertorioan duen forma, hau bai baitaki, baina ez forma honek duen erabilgarritasuna. Oraingoan, irakasleak ikasleari eredia ematen badio, ariketa lehenengo kategoriako kondizionatzaileen artekoa izango da. Bestalde, ikasleak argi egingo dioten klabeen aurrean, "should have" forma erabiltzen asmatzen ez badu, ariketa hirugarren mailakoetan sartu beharra da, hauetan edozein forma baita onargarri behar hainbateko jarioitasunez esaten baldin bada. Beraz, hainbat laguntza beharko ditu (ariketa honi buruz argitasun gehiago nahi izatera, cf. Boulouffe 1986, 1987, 1990 eta 1991).

### **Ondorioak**

Printzipio haxe da ariketa deskondizionatzaileen funtsa: "ikasleak, dirudienez, oso prest daude beren ezagutzen arteko diskrepantziak aintzat ez hartzeko" (Norman 1980: 43). Beren aurritzi eta hutsegiteen berri ez izateko joera dute. Ondorioz, "aurritziak kentzea izan daiteke ikasi beharreko gaiak bereganatu eta gogoan hartzeko faktore eraginkorrik bakanenetako bat" (Ausubel 1968: 336). Askotan errazegi ahazten dugu hizkuntza arrotza adimenaren gaia dela, nahiz eta hizkuntza ikasteko metahizkuntza abstraktuaren auzi-mauzitan sartu beharrik ez dagoen. Bigarren hizkuntzak ikasteak berekin dituen arazoak eta korapiloak askatzeari ama-hizkuntza ikasteari hainbat denbora eman beharko

litzaioke. Materiala antolatzea bera da arazoei irtenbide emateko jarduna formula bezala ikasitako lokuzio eta esaldiak norberaren adierazpiderako tresna analizatu eta erabilgarri bihurtzen direnean. Irakasleak ez luke pentsatu behar ikasleek berez komunikamena hobetzeko joera dutenik. Seguraski fosilizatzeko joera handiagoa dute.

*Itzultzailea: Boni Urkizu*

## **Bibliografia**

- Ausubel, D. P.** 1968. *Educational psychology: A cognitive view*. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- Boulouffe, J.** 1986. Intake as the Locus of Equilibrium in Language Learning. *Language Learning*, 36/3, 245-275.
- Boulouffe, J.** 1987. Calling on the Language Learner's Cognitive Abilities. *Iral*, 25/2, 139-153.
- Boulouffe, J.** 1990. Présence du sujet dans l'exercice de langue. *Le Français dans le monde* numéro spécial: Acquisition et utilisation d'une langue étrangère: l'approche cognitive, 171-181.
- Boulouffe, J.** 1991. Une place pour la pédagogie en didactique des langues. *Revue québécoise de linguistique*, 21/1, 1-16.
- Capelle, G., J. P. Bougère and D. Girard.** 1965. *Passport to English 2*. Paris: Didier.
- Capelle, G., C. Pavlik and M. Keenan Segal.** 1986. *I love English*. New York: Regents.
- Merat, F. and M. Fabre.** 1976. *Creative Reading and Writing*. Londres: Collier Macmillan.
- Norman, D. A.** 1980. What goes on in the mind of the learner? *New directions for teaching and learning*, W.J. McKeachie (ed.) San Francisco: Jossey-Bass, 37-49.
- Willis, J.** 1981. *Teaching English through English*. Londres: Longman.